



Erreportajeko argazkietan, Zurriola ikastolako ikasleak ikus daitezke, antzerkia egiten.

Oholtza gainean haziak

Ezohikoa da antzerkia hezkuntzan txertatuta ikustea. Ezohikoa irakasleak antzerkiaren dinamikak ikasleentzat dituen onurak nabarmentzen entzutea, beren sormena teatroaren hamaika bideetan gauatzeko aukera ematea. Aurtengo Kilometroak antolatzeaz arduratu den Zurriola ikastolako (Donostia) antzerki eskolan dagoen parte-hartzea ikusita, haur eta gazteek maite dituzte ezohikoak diren gauzak.

OIER GUILLAN

ZURRIOLA IKASTOLAKO ikasleei txikitatik ematen zaie aukera ikasturtez ikasturte antzerkiaren arlo ezberdinetan murgiltzeko, izan mimoarenean, clown-arenean edo testurik mamitsuenetan. Teatro diziplina horiekin batera ezagutzen ahal dituzte bestelako altxorak ere: talde lanaren balioa, gorputzarekin espresatzearen garrantzia,

oholtzatik at ardurak hartzearen eta konpartitzearen magia...

Urte asko ditu antzerkiak Zurriola ikastolaren historian, eta erreferentzia bilakatu da maila horretan askorentzat. Duela hogeita bost urte inguru Gotzon Alemanek ekin zion bideari, eta haren ondotik Montxo Imazek, ordubeteko klaseak emanez eguerdieta-

ko tartetean. Egun, berrehun eta hirurogei ikasle ari dira hogeita bi taldetan banaturik, guztiak lau irakasleren akuilupean: Joserra Fachado, Montxo Imaz, Mikel Sarriegi eta Izaskun Lacalle. Lehenago arituak dira halaber Anartz Zuazua, Nagore Aranburu, Oihana Maritorea eta Maider Oiartzabal.

Lau irakasleek elkarrekin hartzen dituzte erabakiak eta Fachadok koordinatzen ditu haien oihartzunak: “Proiektu hau gauza handi bilakatu da, baina gure helburuak oso txikiak eta konketuak dira; euskarazko antzerkia bultzatu eta ikasleek ondo pasatzea nahi dugu. Gure helburua ez da aktoreak formatzea, baina horrenbeste urtetan aritzean azkenean oinarri dezente batekin ateratzen dira ikastolatik”. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan hasita, ikasleek ikastola utzi arte jarraitu dezakete ibilbide hori, eta gerora aritzeko ere badira lau talde amateur.

Sormenarekin maitemintzeko plana

Proiektuak hasieran imajinaezina zen dimentsioa hartu badu ere, Fachadok ibilbide horretan autodidaktak izan direla nabarmendu du: “Ibilian joan gara ikasten, ikuskizunak ikusten, jendea galdetzen... Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoekin adibidez konturatu ginen oso txikiak zirela testuekin hasteko eta mimoa egitea erabaki genuen, gorputzaren kontrola eta adierazpena lantzen delako eta arlo horretan sormena izugarria delako”. L.H.ko laugarren mailan ipuiak antzeztan dituzte, oraindik testua barneratu gabe. Bosgarren mailan clowna egiten dute Fachado berarekin: “Oso aurkikuntza polita izan da, sudur horren atzean lotsa galtzen da, imajinario horretan sartu eta sekulako pertsonaiak sortzen dituzte, beraiek barrutik ateratakoak”. Seigarren mailan testuarekin hasten dira lanean, pertsonaia ugari-ko komedia edo fartsekin batik bat.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sakontzera jotzen dute, lehenengo mailan inprobisazioak lantzen dituzte eta bigarre-



Antzerkiarekin ezagutzen dute talde lanaren balioa, gorputzarekin espresatzearen garrantzia, oholtzatik at ardurak hartzearen eta konpartitzearen magia...

nean berriz dantza garaikidea. Hirugarrenean beren testu propioa idatzi eta antzeztan dute: “Lan xumeak dira, baina kezkatzen dituzten gauzez hitz egiten dute eta oso muntaia politak ateratzen dira; gurasoak, ikastola, sakelakoaren erabilera, adiskidetasuna... Adin horretan inportanteak diren gaiak”. D.B.H.ko laugarren maila ziklo


RESTAURANTE - JATETXEA
Juanito kojua
Betiko sukaldaritza euskalduna
Sasoiko produktuak - 110 lagunentzako jangela
Perbi Kalea, 34 (Aste Zaharra) - 20003 DONOSTIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 420 100 - Fax 943 421 871 - kojua@juanitokojua.com - www.juanitokojua.com

KILOMETROAK
09
ELKARREKIN
ZABALDU!

A FUEGO NEGRO
-ALDE ZAHARRA- DONOSTIA
JAN EBAN ENTZUN TRUST ETA TRAST

baten amaiera da eta hor testu ezagun bat hartzen dute oinarri. Hortik aurrera ikasleen esku dago antzerkiarekiko grinari jarraipena ematea. Zurriolak berak ematen du aukera bere lau talde amateurekin, hiru hemezortzi urte inguruko gazteentzat dira eta bat gurasoentzat. Gazte taldeekin eta talde amateurekin urtebete muntaia egiten dituzte, eta hor denetik sartzen da: Ionescoren *Abeslari burusoila*, Lorcaen *La casa de Bernarda Alba*, Moliere, Monthy Phytönen eszenak, bere egunean Legaleon taldeak antzeztutako *Mujeres al rojo vivo*...

Fachadok azaldu duenez, ikasturtearen amaieran urte osoan buruturiko lana hiru emanalditan erakusteko aukera bermatzen saiatzen dira, txikiekin batik bat: “Euren ikaskideen aurrean izaten da lehena, hori da beraientzat handiena, haiek baitira kritikoenak, eta arratsaldean eta hurrengo egunean guraso eta lagunentzat, sarrera librearekin”. Helduagok berriz Donostiako Gazteen Antzerki Jaialdian parte hartzeko aukera izaten dute, eta baita Azpeitiako edo Debako antzerki topaldietan ere, kasuan kasu. Horrenbeste talderen emanaldiak eskaintzeko Aste Santua eta gero hasten dira programazioarekin, ekaina bukatu arte. Aste horietan egunero dago antzezlan bat Zurriola ikastolan eta

**“Haurrei laguntzen diegu pertsona gisa hazten, ez soilik aktore gisa. Ikusten dut nolabait zoriontsuagoak direla antzerkiarekin, irekiagoak, arduratsuagoak...”
Joserra Fachado, antzerki irakaslea**

umeak ohitu egin dira horretara. “Horrek esan nahi du oso kritiko bihurtu direla, antzerki asko ikusten dutelako. Emanaldietan aurreko mailakoak ere gonbidatzen ditugu, datorren ikasturtean egin dezaketena ikusteko, eta horrela zikloa bermatuz doa”, dio Fachadok.

Gaineratu duenez, ikuskizuna bera sortzea ez da, garrantzia izanik ere, azken helburua: “Ez gaude horri bakarrik begira, inportanteena prozesua delako, baina ikuskizuna ere tresna bat da. Askok eztabaidatu dugu horri buruz, ikuskizunaren alde positiboa bilatzen dugu. Ikuskizunari begira taldea kohesionatu egiten da, ardura handiagoak hartzen dituzte... Pentsatzen dugu ez dela txarra gurasoei erakustea ere, bestela ez baitute beste erreferentziarik. Haurrari etxean ahal diote galdetu gustura ote dagoen, baina kontatzea eta ikustea oso ezberdina da”.

Kanpoko begirada

Ekimen honen arrakastak beste ikastetxe batzuen arreta piztu du, eta zenbaitekin egin izan dute elkarlana. Jose Mari Agirretxe “Porrotx”ekin elkarlanean hasi eta bost urtera Lasarteko Landaberri ikastolan berrehun eta berrogeita hamar ikasle dituzte. Euskal Telebistatik ere sarritan jo dute Zurriolara telesailarako aktoreen bila, “askotan zuzee





nean etortzen dira casting-ak egitera. Batzuetan horrek klasea aztoratzen du, baina nik uste dut lortu dugula ikasleen artean hori naturaltasunez ematea: hau hartu dute, hurrengoan tokatuko zait niri, eta ez bazait tokatzen ez da ezer gertatzen, nik ez dut antzerkia egiten soilik telebistara joateko”.

Esperientziak hutsuneak antzemateko ere balio izan die. Fachadok aitortu duenez, zailena irakasle lana egin nahi duen jendea aurkitzea da: “Gustatu behar zaizu antzerkia, eta horrekin batera umeei klasea ematea. Askok ez du umeei lan egin nahi”. Beste hutsune handi bat izan da euskarazko teatro testuen eta material didaktikoen gabezia; “ez dugu erreferenterik eduki, horregatik ematen diogu arreta handia belaunaldi berriei laguntzei”. Urte urte pilatzen joan diren euskarazko jatorrizko testuen eta itzulpenen bilduma, beharraren arabera osatzen jarraitzea izan liteke laguntzarako tresna bat: “Ametsa izango litzateke diru-laguntza bat jasotzea urtero testuak edukitzeko. Ez dugu edozer gauza itzuli nahi, erabili daitekeen zerbait baizik, antzezlan koralak, eta emakumezkoenak batez ere. Urtero lortuko bagenu gure beharren araberrako bi itzulpen egitea eta bi sormen lan idaztea, hamar urteren buruan berrogei edukiko genituzke, guretzat eta behar dituen edonorentzat”, azaldu digu koordinatzaileak.

Kezka horiek medio, Zurriola ikastolako kideak buru-belarri murgildu dira eratze bidean den Antzerkizale elkartearen sorreran: “Testuen fondo bat biltzeko, gauzak trukatzeko, zirkuitu bat egiteko... Gainera Zurriolako esperientzia bai ikastoletara bai herrietara esporta daitekeen proiektua dela pentsatzen dugu”. Oraingoz guraso talde baten laguntzari eta beste hainbaten parte-hartzeari esker bete dituzte hutsuneak. Fachadok dioenez, eskura dituzten zenbakiak garrantzitsuak dira baina garrantzitsuena oinarria gogoratzea da: “Nik uste dut haurrei laguntzen diegula pertsona gisa hazten, ez soilik aktore gisa. Ikusten dut nolabait zoriontsuagoak direla antzerkiarekin, irekiagoak, arduratsuagoak... Beti esaten diet gurasoei oholztan ikusten dutena baino politagoa dela atzean dagoena, haien arteko mugimendua, talde lanaren indarra”.

Azken hilabeteetan Zurriola ikastolako aktoreak eta sortzaileak jo eta su aritu dira urriaren 4ko hitzordua prestatzen: Kilometroak ikastolen jaia. Urtean zehar, festa iragarri duten ekoizpen propioko ikuskizunak sortzen aritu dira, Kilometroak-en inguruan antolatu diren hainbat ekitalditan aurkezpen lanak egiten, eta sormenaz ari garenez, urrats bakoitzean irudimena bide duen giroa sortzen. ■

taberna • jateketa

**Zurriolako
hendartza
ondoan**

**elo
sta**

Eguneko menua:
7 lehenengo,
7 bigarren.

Entsalada epelak eta
plater konbinatuak

Colón Pasealekua 41 • 20002 DONOSTIA • Tel: 943 28 78 27

**HOTEL
arrizul**

c/ Peña y Goñi, 1
20002 San Sebastián

Tel. 943 322 804

Email: info@arrizulhotel.com
Web: www.arrizulhotel.com